



**Da:** (ik. **Eta**, bi adierak)

**Daátulo, daátuloa:** *iz. Tre.* Daratulua, zulatzeo tresna./ *Daatuloo.* Daratulua. (JBA, 2006-04-17)

**Dámu det jauna:** *iz. Erl.* Damu dut jauna, kantuan egiten den errezoa./ *Damu det jauna.* Damu dut jauna. (JBA, 2005-01-15)

**Damútu:** *ad.* Damutu./ *Damutu.* Damutu. (JBA, 2004-01-03)/ *Damutu zan pekatu iñe...* *Damutu zan ala ibilie.* Damutu zen bekatu egina... Damutu zen hala ibilia. (JUA, 2004-08-12)/ *Asko etzala damutzen.* Asko ez zela damutzen. (JUA, 2004-08-12)

**Dána:** *zenbtz.* Dena./ *Dana enteintze iñ arek.* Dena ulertzen din hark. (JBA, 1998-11-14)/ *Danandako.* Denentzako. (JUA, 1999-11-06)/ *Iru danea.* Hiru denera. (JBA, 2004-02-07)/ *Dáneen.* Denean. (JBA, 2004-02-29)/ *Ordun danak jute ituan.* Orduan denak joaten zituan. (JUA, 2004-04-10)/ *Danondako.* De-



› **DANBOLIÑE.** Gaztainak erretzeko danbolina. (AA, 2008-01-01)

nontzako. (JUA, 2004-08-09)/ *Danandako.* Denentzako. (JBA, 2005-02-19)

**Dána dalá:** *lok.* Dena dela, edonola ere./ *Dana dala.* Dena dela. (JUA, 2001-12-15)

**Dánba!:** *Onom.* Danba, erorketa adierazteko onomatopeia./ *Danba eroi.* Danba erori. (Eroria onomatopeia honekin adieraziz) (JBA, 2006-04-29)

**Danbólñ, danbólñe:** *iz. Tre.* Danbolina, gaztainak erretzeko tresna./ *Danbólñe.* Danbolina. (JUA, 1998-07-07)

► *Grab. Danbólñe:* “Gaztainak erretzeko... zea bat, ontzi bat bueltaka. An sartu, da su gaiñen bueltaka, poliki-poliki, astiro-astiro, gaztainak erretzeko katxarro bat. Sue azpin da geo, kirteneti buelta eraiñ, kirten luze bat, andi buelta eraiñ, ta astiro-astiro” (JBA, 2002-08-25)

**Danbór, danbórra:** *iz. Tre.* Danborra, musika tresna./ *Danborra jo.* Danborra jo. (JUA, 2001-01-20)/ *Txistue ta danborra jo.* Txistua eta danborra jo. (JUA, 2002-06-15)

**Dangál, dangála:** *iz./izond.* Dangala./ *Dangal majoa.* Dangal majoa. (Luzeago eginez gero. Pertsona dangala: traketsa, handia) (Mariaje UB-k entzuna: JBA, 2003-01-02)

**Daniel:** Daniel, gizon izena./ *Daniel.* Daniel. (JBA, 2005-02-04)

**Dantzálotu, dantza-lotue:** (sinonimoa eta ik. **Agarrau**) (sinonimoa **Baltseo**)

**Dantzáldi, dantzáldie:** *iz.* Dantzaldia./ *Dantzaldie.* Dantzaldia. (JUA, 2002-06-15)/ (sinonimoa **Baile**)

**Dantzári, dantzárie:** *iz.* Dantzaria./ *Dantzarie.* Dantzaria. (Luziano berak ere, *aurreskue* dantzatzen zuen) (JBA, 1999-09-18)

**Dardára, dardára:** *iz.* Dardara./ *Dardaran dao.* Dardaran dago. (Busti den txakurraren gainean) (JBA, 2001-04-14)

**Dear, dearra:** *iz.* Deiadarra./ *Etatzen dio dear batzuk.* Ateratzen dizkio deiar batzuk. (JBA, 2005-08-18)/ *Olako dearrak ateatzen ditu.* Horrelako deiadarrak ateratzen ditu. (Pertsona baten oihuez) (JBA, 2008-10-12)

**Dearka:** *adb.* Deiadarka./ *Dearka.* Deiadarka. (JBA, 1998-09-26)

**Debálde:** *adb.* Debalde, doan./ *Debalde.* Debalde. (JUA, 1999-12-25)

**Debékau:** *ad.* Debekatu./ *Debekau.* Debekatu. (JUA, 1999-11-27)



› **DANTZARIE.** Legazpiko dantzariak argazki zahar batean. (Enrique Guinea, Erreferentzia: 005\_GUI VII-18.3)

**Dei, deie:** *iz. Erl.* Deia./ *Deie.* Deia. (MUA, 1998-01-06)

• *Etog. Ezkontza deia:* Lehen ezkontza bat egin behar zenean, deia izaten zen *ezkondu aurreko iru jaietan.* Hauei lehenengo, bigarren eta hirugarren deiak zeritzaten. Bertan ezkontza horren inguruan arazoren bat agertzeko eskubidea zuen zegokionak. Beste era batetara esanda, *esanai bat jakiñen jartzeko* balio zuen. (JBA, 1998-07-04)

**Dekálitro, dekálitroa:** *iz.* Dekalitro, hamar litro./ *Dekalitro bat ardo.* Dekalitro bat ardo. (JUA, 2001-12-31)

**Délito, délitoa:** *iz.* Delitua./ *Délitoa.* Delitua. (JBA, 1999-11-27)

**Demánda, demánda:** *iz.* Demanda, errieta./ *Demanda.* Demanda. (JBA, 1998-11-07)/ *Demanda itten men daon.* Demanda egiten omen zion. (JBA, 1999-06-19)/ *Demanda itten tzion.* Errieta egiten zion. (JUA, 2001-11-17)/ *Demanda itten tzian.* Demanda egiten zidan. (Apaizak aitortzera joandakoan) (JUA, 2004-03-13)/ *Demanda besteik ez dao.* Demanda besterik ez dago. (JBA, 2004-08-09)

**Demándan:** *adb.* Demandan, errietan./ *Demandan.* Demandan. (JBA, 2002-01-20)

**Demása:** *izond.* Demasa./ *Ez dare oso demasak.* Ez daude oso demasak. (Urte asko izan arren, gutxi hazi diren pinu batzuen gainean) (JBA, 2005-09-09)

**Demónio:** *interj.* Demonio, galdera indartzeko asmoz esana./ *Nun demonio da ba ura?* Non demonio da ba hura? (JBA, 2000-02-19)/ *Nun demonio dittún.* Non demonio ditugun. (JBA, 2005-08-12)

**Demónio, demónioa:** *I. iz.* Mit. Demonioa, deabrua./ *Demonioa.* Demonioa. (Errudak deabruak uxatzeko zuen gaitasunaz esana) (JBA, 2002-01-20)/ (ik. eta sinonimoa **Etxi**) *2. izond.* Demonioa. Malezia duen pertsona./ *Demonioa.* Demonioa. (JUA, 1999-07-03)

**Denbóaldi, denbóaldie:** (ik. **Denpoaldi**)

**Denbóra, denbórea:** (ik. **Denpora**)

**Denbóraldi, denbóraldie:** (ik. **Denpoaldi**)

**Dénda, déndea:** *iz.* Denda./ *Dendea.* Denda. (JUA, 2003-06-07)/ *Dendan.* Dendan. (JBA, 2000-12-31)/ *Déndea.* Denda. (JBA, 2005-01-08)

**Dendári, dendárie:** *iz.* Dendaria./ *Dendarie.* Dendaria. (JBA, 2002-01-20)/ *Dendarik.* Dendariak. (JBA, 2002-01-20)

**Dénpoa, dénporea:** (ik. **Denpora**)

**Denpóaldi, denpóaldie:** *iz.* Denboraldia./ *Denpoalditxo bat.* Denboralditxo bat. (JBA, 1999-04-24)/ *Gaur 'e denpoaldiñ euki det kanpon.* Gaur ere denboraldian eduki dut kanpoan. (Txakurra askatu duela adieraziz) (JBA, 2000-11-11)/ *Denboaldie... denboraldie.* Denboraldia... denboraldia. (JBA, 2002-03-21)/ *Denporaldi.* Denboraldi. (JBA, 2002-03-21)/ (aldaerak **Denboaldi; Denboraldi; Denporaldi**)

**Dénpora, dénporea:** *iz.* Denpora./ *Denpoa gutxin barrun ilda.* Denpora gutxiren barruan hilda. (Epe labur batean hildako pertsona batzuen gainean) (JBA, 1999-07-03)/ *Brasilen eon tzan denpora luzen.* Brasilen egon zen denpora luzean. (Bere lehengusina misiolariaren gainean) (JUA, 2000-12-16)/ *Denpora guzik.* Denpora guztiak. (JBA, 2000-12-16)/ *Denpora askon eon tzien or.* Denpora askoan egon ziren hor. (JBA, 2002-08-03)/ *Denborata.* Denboretara. (Denpora askora) (JBA, 2003-03-21)/ *Denporea be- arko.* Denpora beharko. (JUA, 2004-09-



› **DEPOSITOA.** Armuñoko ur depositua. (AA, 2005-04-30)

04)/ *Denporea.* Denpora. (JBA, 2007-05-01)/ (aldaerak **Denbora; Denpoa**)

**DENPORA EUKI:** *ad.* Denpora eduki, adina adieran./ *Zenbait dénpora dauke ba onek?* Zenbait denpora dauka ba honek? (Txakur baten adinaren gainean) (JUA, 1999-08-08)

**DENPORA IN:** *ad.* Denpora nolabait pasa hitzartutako ordua iritsi arte./ *Denporea itten.* Denpora egiten. (JBA, 2006-05-27)

**Denpóraldi, denpóraldie:** (ik. **Denpoaldi**)

**Denúntzi, denúntzie:** *iz.* Denuntzia./ *Denuntzie.* Denuntzia. (JBA, 2002-06-15)

**Depósito, depósitoa:** *iz.* Depositua./ *Depositoa.* Depositua. (JBA, 1999-08-03)

• *Etnog.* **Olabasokoa:** Olabaso aldean, ur depositu bat bada. Hainbat metroko zabal eta luze den harrizko egitura borobildu bat da, goitik irekia. Ura sartzeko eta ateratzeko bi burdinazko ate ditu bi aldeetan jarriak./ Olabaso bertan, depositu bertatik ere distantzi batetara, *depositorako kaiñue* ere agertzen da. (JBA, 1999-08-03)

**Derrépente:** *adb.* Derrepente, bat-batean./ *Derrepenten berotu.* Derrepente berotu. (Elurra urtzeaz) (JBA, 2005-05-14)

**Derríor:** *adb.* Derrigor./ *Amen eon bear do mugarri bat, derríor.* Hemen egon behar du mugarri bat, derrigor. (JBA, 1999-08-14)/ *Kendu derríor kendu bear.* Kendu derrigor kendu behar. (JBA, 2004-06-12)/ *Derríorren.* Derrigorrean. (JUA, 1999-08-23)

**Derríorrezko, derríorrezkoa:** *izlag.* Derrigorrezkoa./ *Derríorrezkoa dauke jatea.* Derrigorrezkoa dauka jatea. (JBA, 2002-03-16)

**Derríortu:** *ad.* Derrigortu./ *Derríorrekogauza bat... derríortzen banaiz.* Derrí-

gorreko gauza bat... Derrigortzen banaiz. (JBA, 2004-08-13)

**Deseindu:** *ad.* Desegin./ *Deseinduta.* Deseinduta. (JBA, 1999-02-11)/ *Deseindutzeko.* Desegeteko. (JBA, 1999-05-08)/ *Deseindu.* Desegin. (JBA, 2002-08-03)

**Deskántsua, deskántsue:** *iz.* Atsedena./ *Deskantsualdie.* Atsedendia. (JUA, 1999-09-11)

**Deskárga, deskárga:** *iz.* Deskargak egitea, esan beharreko gaizki esan denak esatea./ *Deskargak.* Deskargak. (JBA, 2002-03-02)

**Deskuidau:** *ad.* Deskuidatu, ardura galdu./ *Ez deskuidatzeko gero.* Ez deskuidatzeko gero. (JUA, 1999-08-23)

**Deskuido, deskuido:** *iz.* Zerbaitetan behar zen arreta ez jartzeagatik hartutako ezustekoa./ *Deskuidoan izan tzon.* Deskuidoan izan zuen. (JBA, 2007-10-26)

**Despédittu:** *ad.* Agurtu./ *Despedittu naue.* Agurtu naute. (JBA, 2006-08-17)

**Desténplau:** *ad.* Destenplatu, tenplea galdu./ *Destenplautu.* Destenplatuta. (Tenplea galduta) (JUA-k, gaizki moztzen duen matxete baten gainean, kamutsa ez ezik destenplatu ere badagoela dio) (JUA, 2001-09-08)

**Dezénte:** *zenbtz.* Dezente./ *Erak dezente bear.* Eurek dezente bear. (JBA, 2004-02-21)/ *Dezente botatzen ai diela.* Dezente botatzen ari direla. (Pinuen gainean) (JBA, 2004-03-27)/ *Jendea dezente zeillen.* Jendea dezente zebilen. (JBA, 2007-04-08)

**Deztéra, deztérea:** *iz.* Tre. Deztera. *Aizkorak-eta zorrotzeko harrizko gupila.* Gupil hau tresna bati lotua doa. Erditik kirten birakor batek zeharkatzen du bere zuloa (*eraitteko kirtena*). Dezteraren be-

DI-DA



› **DEZTEREA.** Arantzazu aldeko deztera. (AA, 2007-09-02)

healdea berriz, urez betetako burdinazko aska batean sartzen da. Aska hau hankaduna da. (JBA, 1999-04-17)/ Agirrezabal baserrian, bi etxebizitzek deztera bakarra zuten. (JBA, 2002-01-26)

- **Grab. Dezterea:** “Dezterea ba arri borobil bat, aundixeo o txikixeo, bai aizkorak-eta zorrozteko. Kutxilok-eta zorrozteko ebal-tzen tzan bat len. Oiñ’e badare or emetan, ankekiñ erañez ta ola. Eta besta batzuk elektrikok’e eukiko ttue, oiñ jarrita. Baiño lenau beintzet arearri borobill aundi bat, berdiñ-berdiñe danea ta erdiñ ba eraitteko zea. Ta gainea, geo ola, aska baten moun, aska baten zean eoten zan ura. An ude eukitzen tzon, aizkorea-ta zorrozteko bear tzon umedadea. Da orratio beti bustie, bueltaka ai zala ba beti bustie. Ta an gauza asko zorrozteko zittuen lenau. Araortzak eta olako gauzak’e. Ta sardan ortzak eta aizkorak-eta, kutxilok eta gauza asko”. Etxe bakoitzean bat izaten al zen?: “Arrezalen bitako bat zeukien. Bai. Oiñ’e eongo da ura, nik uste et, ez dakit zer daun’e. Baiño oiñ bestela ebal-tze ttue, elektrikok ebalte ttue. Oiñ, ez ta-kiit ura, uste et an eongo ala. Antxe etxe azpin zan. Euzkitzako Balentiñena’re ortxe dao. Ikusita al zare zu? Ez, ez zare ikusita? Ba ortxe etxe azpiñ dauke Balentiñek” (JBA, 2002-01-26)

**Di-da:** *Onom.* Di-da, ekintza baten bizkortasuna adierazten duen onomatopeia./ *Di-da.* Di-da. (JBA, 2006-01-14)



› **DIRUE.** Garai bateko zilarrezko txanponen marrazkia. (Maria Jesus Ugalde, 2008)

**Diféntzi, diféntzie:** *iz.* Diferentzia, aldea./ *Diféntzi ona daukiñ.* Diferentzia ona zaukan. (JBA, 2003-08-23)/ *Diféntzi aundik.* Diferentzia handiak. (JBA, 2004-08-09)/ *Diféntzie.* Diferentzia. (JBA, 2002-08-03)

**Diférente, diférente:** *izond.* Ezberdina, diferentea./ *Diférente.* Diferentea. (JBA, 2004-02-01)

**Diférentetu:** *ad.* Ezberdindu./ *Diférentetuta.* Ezberdinduta. (Berak ezagutzen zuen basoaren itxura asko aldatu dela) (JBA, 2002-01-06)

**Diki-dáka:** *Onom.* Kolpeak adierazteko onomatopeia./ *Diki-dáka.* Diki-daka. (Pertsona batek beste bat nola kolpatzen duen adierazteko) (JBA, 2004-07-10)

**Din-don:** *adb.* Kolokan, erortzeaz./ *Din-dónen daok.* Din-donean zagok. (Kolokan dagoen zuhaitz baten gainean) (JBA, 2004-06-12)

**Dinamíta, dinamíte:** *iz.* Dinamita./ *Dinamíte.* Dinamita. (JUA, 2004-08-10)

**Diósala:** *iz.* Diosala, agurra./ *Diósala ein diu.* Diosala egin digu. (JBA, 2002-01-29)/ *Diósala eitten dit.* Diosala egiten dit. (Honekin agur egiten diola adieraziz) (JBA, 2003-03-21)/ *Diósalik itte ez duenak.* Diósalik egiten ez dutenak. (JBA, 2003-07-12)/ *Diósala.* Diosala. (Beti forma mugagabeen erabilia) (JBA, 2006-12-16)

**Diru, dirue:** *iz.* Dirua./ *Diruik etzan ikusten.* Dirurik ez zen ikusten. (Joxepa BA, 1998-08-11)/ *Dirue.* Dirua. (JBA, 1999-07-26)/ *Baiño aek etzeuken diruik.* Baiña hark ez zeukan dirurik. (JUA, 2002-12-27)/ *Diru berrie.* Diru berria. (Soldataren gainean) (JUA, 1999-08-23)/ *Diruatio.* Diruarengatik. (JUA, 2004-03-13)/ *Dirue poltsikum.* Dirua poltsikotan. (JUA, 2004-05-29)/ *Esne dirun batzuk.* Esne diruren batzuk. (Esnea saltzeaz ateratako diruaz) (JBA, 2004-05-29)

**DIRUE ARTU:** *ad.* Dirua eskuratu./ *Diru asko artu.* Diru asko hartu. (Pinudiak bota eta horrela ateratako dirua esaera honen bidez adierazten du) (JUA, 1998-08-01)

**DIRUE ETA:** *ad.* Dirua egin norbaiten kontura./ *Diru pilla bat etatzeatio.* Diru pila bat ateratzeagatik. (Etekina atera norbaiten kontura) (JBA, 2006-09-23)

**DIRUE IN:** *ad.* Dirua egin, dirua irabazi./ *Oik dirue inda eongo die.* Horiek dirua egin da egongo dira. (JUA, 2002-12-25)

**Dirútu:** *ad.* Dirutu, dirua irabazi, dirua eskuratu./ *Ok dirututa etorriko ttuk.* Hauek dirututa etorriko dituk. (JUA, 2003-12-31)

**Dirúzale, dirúzale:** *izond.* Diruzalea./ *Diruzalea, gaiztoa.* Diruzalea, gaiztoa. (JUA, 1999-11-06)/ *Diruzalea.* Diruzalea. (JBA, 2000-09-16)

**Disdirazio, disdirazio:** *iz.* Distira./ *Disdirazioa.* Distira. (JBA, 1998-08-07) (sinonimoa **Brillantetasun**)

**Disgústto, disgústto:** *iz.* Disgustua, atsekabea./ *Disgústto jan ezkeo.* Disgustura jan ezker. (JBA, 2006-02-11)

**Diskusío, diskusíoa:** *iz.* Eztabaida./ *Diskusíok.* Eztabaidak. (JBA, 2002-03-02)

**Distíngittu, distíngittue:** *izond.* Desberdindu./ *Oso distingittue.* Oso desberdindu. (Pertsona baten joeraren gainean) (JBA, 2004-03-21)

**Dixímulo, dixímulo:** *iz.* Disimulua./ *Dixímulon.* Disimuluan. (JBA, 2005-03-12)

**Domínau:** *ad.* Menderatu./ *Ua dominau ezinda.* Hura menderatu ezinda. (JBA, 2002-03-02) (sinonimoa **Mendeau**)

**Domíngo-Aundi:** Domingo Goiburu artzainaren ezizena./ *Domingo-Aundi.* Domingo Aundi. (Artzain honen aditzera baduela dio) (JBA, 2007-02-17)

**Domínistiku, domínistike:** *iz.* Doministikua./ *Doministikuk.* Doministikuak. (JBA, 2004-08-12)/ *Dómínistiku.* Doministikua. (JBA, 2004-08-13)

**Domínistikuka:** *adb.* Doministikuka./ *Doministikuka.* Doministikuka. (JBA, 1998-10-31)

**Don Jérónimo:** (ik. **Jeronimo Sarriegi**)

**Don Juan:** *Erl.* Don Juan Aranguren, Erraizabal baserrian jaiotako apaiza. Ezkioko Anduaga auzoan izan zen apaiz; *oso euskalzale aundi oitakoa zan.* (MUA, 2003-04-11) (•)

**Don Pedro:** *Erl.* Brinkolan egon zen Azkoitiko apaiza. Luzianok, JUA-ren aitak, sermoi batean hau entzun zion Don Pedro apaizari: *Jangoikoi ez dezue ziriik sartuko!* (JUA, 2002-10-26)

**Doností:** *Topo.* Donostia, Gipuzkoako hiriburua./ *Lenengo Donostikoa.* Lehenengo Donostiakoa. (JUA, 2003-06-07)



› **DON JUAN.** Erraizabal baserrikoa zen Juan Aranguren apaiza. (AA, 2005-03-12)

**Dorléta:** *Erl.* Dorletako Ama Birjinaren eskean emakume bat etortzen zen. Afaldu eta lo egitea Olazarren egokitu zitzaion batean, arrosario erreztatzen ari omen ziren sukaldean. Arrosario erdian honela esan omen zion: <Komunik ba al daukazue?>. Eta Olazarren, komunik ez, eta amandreak hor eraman omen zuen ukui-lura, farola hartuta. (Mariaje UB-k entzuna: JUA, 1999-11-18)/ (•)



› **DORLETA.** Dorletako Amaren baselizako erretaula, Leintz Gatzaga herrian. (AA, 2008-06-22)

**Dórnu, dórnu:** *iz. Tre.* Tornua, garia garbitzeko tornua./ *Dornue.* Tornua. (Tornua, garia garbitzeko tornua) (JBA, 1999-03-27)/ *Geo dornun garbittu.* Gero tornuan garbitu. (JUA, 2003-03-01)/ *Dórnu.* Tornua. (Garia jotzekoak) (JBA, 2004-09-18)/ (ik. **Garie jotzeko makina**)

- *Etnog. Auzoko tornua:* Gari aleak bereizteko balio zuen makina zuten. Garia garbitzeko galbahe sistema bat jartzen zen martxan. Tornua eta garia jotzeko makina, baserri multzo baten ondasuna izaten ziren, horrela bere erabilpena baserri bakoitzari egun batez zegokion. Olazar baserriak beste baserri hauekin batera zuen makina hauen jabetza: *Igalde, Monttei, Euzkiza*. Baserri bakoitzak egun bakarra zuen bi makina hauek erabiltzeko eta horrek eskulan handia suposatzen zuen. Hor-taz, beste baserrietatik laguntzera etorri ohi ziren eta ordainez galaparia jaso ohi zuten. (JBA, 1998-02-12)

**Dos mil:** *Mit.* Luziano Ugaldek, JUA-ren aitak, uste zuen munduaren akabera izango zela *dos mil* o *no dos mil* urtean. (JBA, 1998-12-12)/ (ik. **Mundu**) (ik. **Zazpi-urte**)

**Dotóre:** *adb.* Dotore./ *Dotore jantzita.* Dotore jantzita. (JUA, 2004-08-12)/ (sinonimoa **Elegante**)

**Dotóre, dotórea:** *izond.* Dotorea./ *Dotorea.* Dotorea. (JUA, 2004-06-12)/ *Andra dotorek.* Andre dotoreak. (JBA, 2004-10-



› **DORNUE.** Garie garbitzeko domue. (AA, 2005-09-24)

02)/ *Ze dotorea dan.* Ze dotorea den. (Urruzearren gainean) (JBA, 2007-05-19)

**Dotóretu:** *ad.* Dotoretu./ *Dotoretzeatio.* Dotoretzeagatik. (JBA, 2005-01-29)/ *Dotoretu.* Dotoretu. (JUA, 2003-10-18)

**Dotriña, dotriña:** *iz. Erl.* Dotrina./ *Dotriña.* Dotrina. (JBA, 2000-09-16)

- *Etnog. Dotrina:* JBA-ren esanetan, eurek dotrina San Joanen izaten zuten. Euren jarrreraren arabera koloretako zigilu batzuk ematen zizkieten eta urtero, dotrina amaieran zigiluen arabera sariak izaten zituzten. Horrela soineko bat jaso omen zuen JBA-k. (JBA, 2000-09-16)

**Dozéna, dozénea:** *zenbtz.* Dozena./ *Dozena erdi bat.* Dozena erdi bat. (JUA, 2000-06-17)/ *Arrautzak pai, dozena bat pai.* Arrautzak bai, dozena bat bai. (JBA, 2004-02-29)/ *Bi dozena baiño geiaio.* Bi dozena baino gehiago. (JUA, 2004-09-18)

**Drága, drágea:** *iz. Tre.* Draga, gurdia-  
ren galga./ *Dragea ibili bear zan... frenue.* Draga erabili behar zen... galga. (Mariaje UB-k entzuna: JUA, 2002-09-23)/ *Dragea.* Draga. (JBA, 2005-12-25)

**Drúa, drúgea:** (ik. **Druga**)

**Drúga, drúgea:** *iz. Tre.* Garabia, bere adiera guztietan./ *Drugak... drugak bauzkik?... druak.* Garabiak... garabiak bazauzkak?... Garabiak. (Lantegi barruan piezak mugitzeko garabien gainean) (JUA, 2004-05-12)/ (aldea **Drua**) (sinonimoa **Grua**)

**Dúda, dúdea:** *iz.* Duda./ *Dudan daola.* Dudan dagoela. (JBA, 2005-04-02)

**Dúke, dúkea:** *iz.* Dukea.

- *Etnog. Dúkea:* *Dúkea zian Madrilgoa* eta *gizon ona* gainera. Estatu osoan zituen banatuak bere lur jabetzak; Andaluzia edo Gaztelan oso sail handien jabea zen. In-

guru hauetako jabetzak ikuste aldera *udan eonaldi bat itten zian* hemen. Oñatiko notarioa edo *maiordomoa bere laune* zuen. Seme bat ere bazuen; *semea zorrotzagoa zeukian*. Hau ere lege karrera ikasia zen. (JUA, 2001-12-01)/ Dukearen andrea hil zenean, errentero denak Oñatira *oiñez entierroa* joan ziren, eta gero korrean itzuli ziren. Itxuraz dukearen andrea Oñatin hil zen./ Dukearen ama hil zenean, Oñatin meza bat atera zioten errenteroek baita ere./ Dukearen hemengo jabetzak, ez ziren handiak beste alde batzuetan zituen aldean, *emen ez dauke ezer* esaten omen zuten. Toledo aldean-eta sail izugarriak omen zituen. (JUA, 2004-06-19)

- *Etnog. Jabetzak eta errenta:* Olabaso aldeko hainbat lur eta beste batzu baditu oraindik ere dukeak. Duke hau Sotomayor-eko dukea da. Garai baten duke honen eskuetan ziren Brinkolako baserri asko eta bertako baserriarrak errentero zituen. (JBA, 1999-08-03)/ JUA-ren esanetan, dukeak 14 etxe bereak zituen Brinkola eta Telleriarten. Errentan jarritako etxe bakoitzetik pertsona batek lan egin behar



› **DUKEA.** Elorregi etxea dukearen jabetza zen. (AA, 2006-05-21)

## DUKE

izaten zuen urtero zazpi egunez. Lanaldi hau neguan izaten zen eta bertan, dukearen mendietan lan egin behar izaten zuten debalde. Basolanak izaten ziren, pinuak sartu, soildu, pinu hazietarako lurra prestatu aitzurrak eta horrelakoak. JUA bera lan hauetan ibili zen, baserria dukearena zen artean. Lanera etxeko bat bidali ezin zezakeen etxeak, langile bat kontratatu eta hura bidaltzen zuen. (JUA, 1999-12-25)/ Lanegun horietan, langile bakoitzari bizkarkada bana pinu landare ematen zieten, eta lana pinu guztiak sartzean amaituko zela esan ere bai. Batzuk zulo handi bat egiten zuten eta bertan sartu emandako pinu denak. Gero era egokian estali lurrez eta hala bukatzen zuten euren lana. (JUA, 2000-02-19)/ Dukeari baserrien errenta Santo Tomas egunean ordaintzen zioten Brinkolako eta Telleriarteko baserriarrek. Oñatiko erreteroei aurreko egunean ordaintzen zuten eta Aretxabaleta, Eskoriatza eta beste tokitakoek egun bat geroago. Luziano Ugaldek, Iraulika lantegian Santo Tomas eguna jai hartzen zuten ordaintzeta hau egitera joateko Oñatira. Udana aldean elkartzen ziren Legazpiko 11 erreteroei. Oñatira oinez joan eta hau esaten omen zuen kaleko jendeak: *Baxatxok errentia paatzea. Brinkolakoak. Gipuzkoakoak.* Bidea oinez jun da etorri egiten zuten, geroago batzuk txirinduan joaten baziren ere. (JUA, 2001-12-01)/ Errentaren barnean, dukearen baso lurretan lan egitea ere sartzen zen. Garai batean, hamar egun lan egin behar izaten zuten, eguneko pezeta bat jasoaz. Errepublikak indarra hartu zuenean eta lurjabe handiak estu hartu zituenen, beste tratu batera iritsi zen dukea bere erreteroei, zazpi egun lan egingo zutela eta pezetarik jaso gabe./ Errentan zen etxeren bat husten zenean, adibidez bizilaguna kalera joaten zelako bizitzera, dukeak ez zuen nahi izaten beste errentari bat sartzea. Lurra baliatzea nahiago izaten zuen, pinuak landatuz-eta, beste errentari berri bat jartzea baino. (JUA, 2001-12-01)/ Errenta ordaintzerakoan, dukeari errentaz kanpoko sariren bat ere ematen zitzaion, *kapoi pare* adibidez. Errentaren barruan *bi oillasko pare, bi oillo, arrautzak...* ere ordaintzen ziren. (JUA, 2001-12-01)/ Dukearen sailak Brinkola aldean ugariak ziren: *Barrendiolako zubiti, Gibolaiño... Gaztaiñarie, Kontzial, Antxerdiaino...* (JUA, 2001-12-01)/ Santa Lutzi hurren-



► DUKEA. Barrendiola baserrikoek ere errenta ordaintzen zuten. (AA, 2008-10-12)



► DUKEA. Hainbat etheen jabea zen dukea Legazpiko Ergoan, artean argazkian den *Eizear* (Eizagirre). (AA, 2008-11-15)

go egunean errenta ordaintzea izaten zen, eta zera esaten omen zen erreteroen gainean, *ok dirututa etorriko ttuk, beorrrak ta astok salduta.* Erreteroei ematen zitzairen bazkarian, *induabea ta txarradea* izaten zituzten. Kafea ere ematen zitzairen, *kafe ta guzi eman daok.* Hango lanak egin, eta itzulerakoan, *bide guzin kantu ta bertsotan* etortzen ziren errenta ordaindu zutenak. Orduan, zera esaten omen zuen Olazargo amandreak: *Gustoa etorriko ittuán, naiko ardo eman diela.* Ordaintzen zena ere gogoan du, *gu ta etxokanak gudi bat gari.* Elorregi eta errotak beste hainbeste egiten zuten. Bergaretxekoak berriz ez zuten garirik. (JUA, 2003-12-31)

- **Etnog. Olazar saldu:** Errepublikarren gorakadarekin, dukea bezalako lurjabe handientzako gauzak estutu zirela aipatu dugu. Horregatik, *etxe danak saltzeko gogokin dukea* izan zela. Lanak arintze aldera jo zuen dukeak eta poliki-poliki baserriak saltzen joan zen. Horrela saldu zien Olazarrekoei bertako *bi bizitzak*. (JUA, 2001-12-01)/ JUA-k azaldu digu Legazpi aldeko erreteroen zerrenda, hauen zerrenda osoa hartzeko erarik izan ez badugu ere: *Bergaetxe* (bi bizitzak), *Elorrei* (Hiru errenta, bi bizitzak eta hirugarrena errotarena), *bi Barrendiola, Brinkolazar, gu, Eizear* (etxea ez baiño terreno danak)... Legazpi aldean 11 erreteroei ziren. Oñati aldean 14 inguru zirela dio JUA-k. (JUA, 2001-12-01)/ Oñatira oinez joan eta han bazkaltzen zuten. Arratsalde egiten zituzten errenta kontuak. Dukearen notario oñatiarrentzako *iru libra txokolate* eramaten zituzten. Honek erreteroei *errenterixuak* esaten omen zien. Eta errenta ordaindu eta gero, baserriarrek gustura ziren: *berriz'e urteako nausi jarri ziela.* (JUA, 2001-12-01)/ *Notarioa duken ordezkari* zen, oñatiarra eta lege karrera ikasia, *arek legen berri* zeukan. (JUA, 2001-12-01)/ Dukea Olazar baserria ikustera etorri zenean, eta teilatua Etxaburutik ikustean zera esan zuen, *Tirar esto y hacer un caserío nuevo, de cuadro.* Luzianok zera erantzun zion: *Y, ¿Dinero, dinero?*. Sekretarioak zera esan zuen, *este ya tendrá* eta Luzianok atzera: *Yo he trabajado mucho.* Egun hartan

dukea bi alabekin etorri zen, eta hauetako batek ondoan senargaiarekin bazuen. Dukea Olazar baserria ikustera etorri zenean, ondoan *maiordomoa, notarioa, abogaue* zuen. Etxaburura igo arazi eta teilatua ikusi zuen; *zulo aundi bat zeukian.* (Hortik aurrera dukeak esan zuena, eta dukea, Luziano eta maiordomoaren artean izan zen elkarrizketa aurreko batean jaso genuen, 2004-06-19 datan) (JUA, 2004-07-24)

- **Grab. Dukea eta errenta:** *“Ta gu etxen erreterok giñean. Au, etxe au're bai eta Barrendiola're bai, Elorrei-eta ola giñean. Amairu o amalau-o bagiñean. Da juten gizean eune pasatzea, piñuk garbittu, basok garbittu, piñuk sartu, da ala esaten tziunetan. Terreno asko eukitzen zian, or Udana alden-da. Da or esaten tziunetan, da jente tropak'e Oñatin asko zeuzken etxek. Eta aik'e ibiltzen zittuan. Batzutan Udana etortzen zittuan baiño beste batzutan Oñati alden. Da aintzen tzona Oñatin zeukian, maidormoa-o esaten zikona, notarioa bera. Aek aministratzen tzian. Da arek bezelan, Arretxabaletan-da, Eskoriatzanda're etxek ba men zeukian. Ta emen baiño geia or, ze alde ortan, Madrid alde ortan, Riojan alden ortan. Dukea zian, dukea ta tituloik aundinekoa gizona da ola. Nik eun baten, ematen tzaun peseta bat euneko. Garai bateko zea, euneko pesetea ta litro bat ardo. Ta ordun ardo, jo! Litroardoa! Eta mutiko zea. Nik etxen gutxi eraten nian ardo ta an zea ematen (...) ta ra, ta ra ta ra! Eten baik bezela eraten bazkaltzeko garaien. Eta nik'e puskat eran ta moskorra arrapau nian, oso aundie moskorra. Nik arrapau nian moskorra. An etzanda eon bear izan nian azkenen, ezin ibili ta etzanda eon nitzean, an pasau zitean mozkorra. Ta geo etxea beste batek laundu zaan, ta moskorra pasa zanen... Udana, Udana alde ortan, antxe ai giñela. Zenbat persona giñen amabi litro ardo. Personako litroardoa. Urdu eraten tzian ardo! Oaiñ ez dek ardoik eraten, urdu garai artan, ardo asko eraten tzian. Da ni're oitu be neoa, da jentek eran itten tzian da ta ra ta ra ta ra! ta... Jo, ura zian moskorra ura! Urrango eunen aitte jun*

tzian, nik etxen ez nian ezerrez, ez erre esan. An esan tzaen: "Nunbait eraten oitu be dao-ta! Eraten oitu be dao-ta!" Da geo urrengo eunen jun nitzean ni ta gutxi eran nian, nik askotan eran baik ra pasa eitten nian. Oso gutxi eraten nian. Besta batzuk berriz litroardoa baiño geio eraten tzien. Bazittuan asko eraten tzuena. Illuntzako're pixkat lanai utzitakon're antxe juntu ta eraten. Batzuk litroardoa gutxigi zala ta etxeti botea beten eraman'e bai ta danak eran. Jo! Eran urdun! Nik gutxi eraten nian. Oitu bae naon eraten-da... Geo ala geiao enian moskorrik arrapai". Errenta ordaintzeko ze egun zen: "Errentea paatzen tzian Santa Lutzi biarrenen.



DUKEA. Dukearen Oñatiko etxearen atala. Hemen ordaintzen zuten errenta Brinkola eta Telleriarteko baserritarrek. (AA, 2008-12-29)

Bai... Urtero epinitakoa, urteko errentea. Taka-taka-taka, oiñez jun. Tropan aillatzen men zittuan. "Baxatxak Leazpiko errenterak, baxatxak" oiñatiarrak ala esaten men tzien ikusten zittueneren gizon pilloa. Ta gero an bazkarie ematen men tzaen errentea pautakon da ala osatzen men tzien. "Fulano tal", "Presente" Ta gero paatzea. Ta arek pautakon "fulano tal" "presente" ta ala. Ta ari pautakon bazkarie eman. Errentea pautakon bazkarie ematen men tzaen. Jo bazkarin pixkat animau ta gustoa etortzen men zittuan. Oiñez jun da atzea oiñez etorri itten men tzien". Errenta zer izaten zen: "Errentea ainbeste, dirue. Le nau garie eamaten men tzien. Ainbeste, ainbeste kilo gari. Ainbeste anea, ta garie eamaten men tzian lenao. Ni akordatzen nauk garie nola eamaten tzien, e! Aizkenen garie eamaten tzien, ba etortzen tzian autobus zea bat-o etortzen tzian. Autobusen sartuta bakoitzek zaku... Irurogei o larogei kilo errentero bakoitzek. Batzuk geixeo beste batzuk gutxixeo, dirun proportzion...". Errentako dirua igotzen joan zen denboran zehar: "Bai. Gero geiao zian. Bazian... sesentaiño-o igo zien.

Ta jo, pau ta bazkari oona ematen men tzaen, ardo-ta naikoa ta bazkarie, jo!, Gustoa! Urteko nausi in tziela errentea paut. Urtebeteko nausi in tziela, esaten men tzien. Gustoa etortzen men zittuan, ia kantun inda bezela. Naiko ardo-ta emanda. Oik "veinticinco con" oik le nauko kontuk izango zien. Geoz geiao, geoz geiao. Ori... ni akordatzen nauk, geo aizkenen beti sesenta-o. Aizkenen zian, ta emen bestekok zera jun zittuan kalea..." (JUA, 2002-03-16)

- Grab. **Errenta**: Garai batean oiloak ere errentaren zati ziren: "Bai, bai, bai. Lenengo nausiri're bai Oñatira, nausiña eamaten zittuen... Rentea, errentea paatzeko nausie, dukenea, zeatio beraneützea Oñatia etortzen tzien Madridik, eta ordun eramaten tzien arrautzak-eta, nik ez dakit, bi pare oillasko ta ez dakit zenbait dozena arrautza, "agosto"-n, udan or zeren garaien. Eta gero, gaiñeakoa or San Miel inguruan edo udaizkenen dirutan edo ola, le nau garie ematen omen tzioen, baiño gero... ura, nik ez non ezautu gari kontuik. Dirutan pixkan bat, eta auztun-edo ba, le nau amandrea jungo zan, oillaskokiñ-da, Oñatira, arrautzak... Amak'e, ama're, ez dakit ama etorri baiño lenao-edo, ama jun eziñ-eo amandrea jun-eo... Eta gustatzen men zitzakon ango seiñorei ba baserritar jantzita ikustea, abarkakin, artillezko kaltzakin-da, baserriko gauzakin-da, baserriko gauzak eramatea gustatzen men zitzakon". Amandrea joaten zen: "Amandrea jundako... Amandrek esaten tzon, amak etzon esaten, nere aman rekuerdoik ez dauket, amandrek esaten tzon. Gero sartzen tziela palazion, eta klaro, esterea pasillon, gorri-gorri-gorrie. "Ta au ezin zikinduko et pa!" ta aldamenetik pasatzen ziela... Amandrea juten tzan oillaskokiñ da arrautzakiñ. Da gero". Errentaren beselakoa etxeko jaunak ordaintzen zuen: "Errentea gero dirukin bai. Gero, gero bai, ta gaiñea esaten tzon ematen tziela kaiña, kaiñazko makilla bana. Ori aittuta eongo zea igual, ematen tziela regalo bezela, an jardünen ala (...). Baiño "agosto"-n juten tzien amandrea, da ama're jungo zan gero, gero jungo zan, igual ez



» DUKEA. Bergaretxe baserria ere dukearena izan zen. (AA, 2009-01-04)

denbora askon, gero eroste... Nere rekuerdon ori, baiño amandrek esaten tzon ori, bai. Eta esan diana, oillaskoik ez gendum etxen jaten, bueno, erreusen bat izaten tzan, askotan azitzen zien oitako-edo, plazako balio etzuenak, eta oillok bai. Da ni Saasolanea etorri nitzenen, klaro, aitte-ta, tio Joxe ta beste asko, lan eske zeren, etzeukien lanik fabrikari, gerra aurretik oso mixerable eon tzan fabrikea're. Ezin tzon-da, Patxiok ezin tzon. Da, jendea ba, baserriak etortzen zittuan, ba batzuk ekartzen zuen baserriko ogi bat, eo oillaskok eo marmikara bat esne, edo regalokin, semea... Luziona etortzen tzien, Luzio nola zan ba Patrizion zea, da ola. Eta esaten tzien Luziok, "pau izue, pagau lanik ez tao eta pagau, balio dona". Klaro, ez zitzaian iruizen, regalo artu ta artan, Luzioi ez tzakon ori gustatzen. Urdun, ordun... Eta Sasolanea etorri nitzenen amalau urte neuzken baiño oillasko garairako ia euko nittun amabost urte. Eta Kruixitak esan tzian, pixkat seiñoritea-o, esan tzian, "bakizu Txurrunea, etxe zar ori, eta nik es nekiñ, nik es nekiñ, arten Txorrunea zeñi tzan, ez zitzaian tokatu're, enekiñ, da "zer ba?" eta "ara eaman bearko ttuzu oillaskok iltzeko, Justok ilko ttu", Justo zan gizona, oillaskok iltzen zittuna. Esan nion, esan tzian, "oillaskok" nik esan nion "neuk ilko ittut oillaskok", "Zuk oillaskok ildu?"<sup>42</sup>, "Bai, oillaskok ilko ttut, oillok iltze ttut



► DULUN-DULUN. Txintxarri postua Legazpiko Artzain Egunean. (AA, 2003-09-07)

<sup>42</sup> Ildu forma hau, Goierriko beste herri batzutan esaten den **bizitu** formaren aurkakoa ote da?

## DULTZIÑA

*ta oillaskok'e ilko ttut". Arrittuta, arrittuta"* (MUA, 2003-04-11)

**Dultzíña, dultzínea:** *iz. Tre.* Dultzaina, musika tresna./ *Dultzínea, baileako.* Dultzaina, dantzarako. (JUA, 2002-03-16)

**Dulún-dulún:** *Onom.* Txintxarriaren hotsa adierazteko onomatopeia./ *Dulun-du-*



› **DUNBEA.** Dunba. (AA, 2008-01-01)

*lun.* Dulun dulun. (JUA, 2002-10-26)

**Dulzé-saar, dulzé-saarra:** **1.** *iz. Bot.* Dultze sagarra, sagar mota./ *Dulze-saarra.* Dultze sagarra. (JBA, 1998-08-05)/ Sagar mota hau, *bigarren etortzen dana jateko* omen da; lehena aleman-sagarra da. (JBA, 2003-03-30)/ (sinonimoa **Gozo-saar**, lehen adiera) (*ik. Saar*)/ **2.** *iz. Bot.* Sagarrondo mota.

► *Grab. **Dulze saarra:** "Dulze saarra? Ba sagar bat. Ori're da sagar oriskea, oriskaberdea. Eta ori're garaiz eltzen da. "O sea", lenengo aleman saarra ta gero... "O sea", garaiz eltzen dan sagar bat. Da guren'e zaarrak bakarrik zeren da sestrauta ipini genduzten da badave beste pare, iru bat beintzet. Ondio ez die ematen asi. Nik ez dakit noiz emango duen, arbolatxok einda dare baiño. Noiz ematen asiko dien. Ori're igual emengo errezille bezela, dozena bai urtea asten men da ematen-da. Ori, ez takiu, ori, baiño bauzku, e! Arrezalen'e bazien. Da geo ona etorri nitzenen emen'e bai, dulze saarrak-ta. Baiño emen etziten esaten dulze saarrak?". Olazarren bestela deitzen zitzaizen: "Goiz saarra, goiz saarra esaten ziten, bai! Da aurtan'e zea in dittuu. Andi artu dittugu sagarrak. Dana biurea jarrita dauke, "o sea" da biurea inda ta bota bearren dauku sagar zaaara da oso-ta. Baiño ordekok jarrita dauzku" (JBA, 2002-01-26)*

**Dúnba, dúnbea:** *iz. Tre.* Dunba, txintxarri handia./ *Dunbak.* Dunbak. (JBA, 2007-02-17)/ *Dunbaak.* Dunbak. (Behiaren txintxarriaz) (JBA, 2008-08-23)

**Dúro, dúroa:** *iz.* Duroa, bost pezetako txanpona./ *Bi duro.* Bi duro. (JUA, 2002-03-23)

**Dúru:** *Topo.* Duru, Brinkolatik Arantzazurako bidean alde batera geratzen den parajea./ *Duruko zelaie.* Duruko zelaia. (JUA, 2003-06-07)



› **DURU.** Oñatiko Duru eremuko artzain txabola. (AA, 2007-09-02)